

# Beste substantzia aromatizatzaile bat kendu dute EBko zerrendatik

## DESKARGATU PDF

EBn erabilitako osagai teknologikoak (gehigarriak, lurrinak...) ebaluazio jarraituaren menpe daude, baimendutako substantzien zerrendan sartu edo bertatik ateratzeko.

Furan-2(5H)-ona substantzia aromatizatzailea 1334/2008 Erregelamenduaren (EE) I. eranskinean jasota dago ebaluazio-fasean dagoen substantzia aromatizatzaile gisa, zeinetarako Elikagaien Segurtasuneko Europako Agentziak (EFSA) datu zientifiko osagarriak eskatu baitzituen.

Datu horiek aurkeztu eta ebaluatu ondoren, EFSAk ondorioztatu zuen furan-2(5H)-ona substantziak segurtasun-arazo bat planteatzen duela genotoxizitateari dagokionez; izan ere, genotoxikoa da (in vivo).

Furan-2(5H)-ona substantziaren erabilerak, beraz, ez du betetzen 1334/2008 Erregelamenduan (EE) ezarritako lurrinen erabilera orokorraren baldintza.

**Ondorioz, substantzia hori zerrendatik atera behar da berehala, giza osasuna babesteko xedez.**

Hori dela eta, honako hau argitaratu da:

**2019/799 Erregelamendua (EB), 1334/2008 Erregelamenduaren (EE) I. eranskina aldatzen duena, Batasuneko zerrendatik furan-2(5H)-ona substantzia aromatizatzailea kentzeari dagokionez.**

**ELIKA**

. Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .

**berri@elika.eus**